

KLIMA-ALDAKETARAKO ZUHAITZAK ETA BELARRAK

Posted on 19/08/2014 by Naider



EHUko [UPV/EHUko Landare Fisiologia Laborategiko](#) ikertzaileek berotegi efektuaren emisioak eta sarrerak neurtu dituzte. Euskal Herriko hainbat baso eta larretan klima aldaketak eragingo dituen ur-baldintzetara ondoen egokitzen den zuhaitzak aukeratzeko sistema proposatzeko azken xedearekin.

Larreetan, ur- eta temperatura-baldintza jakin batzuetan nitrogeno-konposatuak gal ez daitezen DMPP konposatuaren eraginkortasuna neurtu da. Basoetan, bere aldetik, berotegi-efektuko gas nagusien (CO_2 , N_2O eta CH_4) isurketak neurtu eta baso mota ezberdinen arteko aldeak kalkulatu dira. Frogatuta dago, bestalde, metodo jakin batek balio izan dezakeela zuhaitzak etorkizunean nola aklimatatuko diren aurreikusteko, jatorriaren arabera, ur-baldintza batzuetara, klima-aldaketak berekin ekarriko dituen ur-baldintzetara nola moldatuko diren jakiteko bidea irekiz.

There are no comments yet.